

JOSEBA ESKUBI

2012.11.13 - 2013.1.13

rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita


Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



BizkaikOA



Euskera

JOSEBA ESKUBI

INSOMNIA

2012ko azaroaren 13a - 2013ko urtarrilaren 13a

- Rekalde Aretoak Joseba Eskubi (Bilbo, 1967) margolariaren erakusketa bat aurkezten du. Bertan, oraintsu egindako formatu txikiko zenbait lan bildu ditu, *Insomnia* izenburupean. Margolan klasikoaren imprimatutako erreprodukzioak gainean egindako esku-hartze zuzenak dira lan guztiak, artistak desitxuratu egiten baititu, hausturak, txorrostadak eta tolesturak sartuz.
- Collage modura jarrita, jatorrizko irudiak lurperatuta bezala geratzen dira, eta horien gainean daudenek esanahi berriak eta iradokitzaileak eskaintzen dizkigute. Eskubiren hitzetan: "Collage moduko hauek ez dira asmo parodiko edo historizista baten emaitza; hori baino gehiago, jatorrizko kontakizuneko gailua suntsitu nahi izan dut, formak testuingurutik atereaz, eta tentsio eta norabide berriak sartuz konposizioan. Margolan "egokiak" ikusizko hondakinak balira bezala azaltzen dira, eta, bertan, zaila da mailegatutako obraren hasierako zentzua asmatzea".
- *Insomnia* laborategian, esperimentazioa egiten da irudiak iradokitzeko dituen aukerekin. Margoen gaineko margoa da, eta orainaren eta iraganaren arteko harremanak eta elkarrizketak eraten dira. Aurki, liburu batean argitaratuko dituzten collage horiek **Belleza Infinita** argialetxeak.
- Joseba Eskubi gaur egungo margolaritzako ahotsik berezietako bat da, ekoizpen zabalak baitu, eta garatu duen unibertso plastikoa oso berezia baita. Bere irudietan agertzen den atmosfera oso trinkoa eta kezagarria da, neorromantikoa edo surrealista, kasuaren arabera.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean margolaritzako irakaslea den Joseba Eskuin hurrengo komentatu du bere lanari buruz: "Niri interesatzen zait irudiak halako kutsu apokaliptiko edo izugarri bat har dezan batzuetan; hori baino gehiago, halako tentsio bat, itxaropen bat sortu nahi dut".

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

ERAKUSKETA

Insomnia izeneko erakusketa honetan, Joseba Eskubik formatu txikiko artelanen sail bat aurkezten digu. Hainbat margolan klasikoren kopia inprimatuen gainean egin dituen esku-hartze piktorikoen emaitza da sail hori. Margolariak irudiak aldatzen ditu, jatorrizko lanen zentzua ezkutatzea eta mozarrotzea lortu arte. Orduan, formak itxuraldatzen dira, eta keinuen eta orbanen geografia barroko bat sorrarazten dute. Margolan zaharren irudiak erabat estalita geratzen dira margo-multzoaren azpian, eta hondamenezko paisaia apokaliptiko bat sortzen da, erretratuen eta dekorazioaren zatiak iradokita bezala dauzkan paisaia.

Margoaren gaineko margoa da; bertan, irudiak gainjarrita daude, tartean sartuta eta nahastuta, eta, ondorioz, gaizki egiten da motiboen irakurketa. Artelanak "collage" modura eratzen dira, eta, bertan, zatiak ikusmen-unitate berean daude muntatuta. *Insomnia* sailean, egileak irudi klasikoen abstrakzioa egin nahi du, testuingurutik atera, eta anbiguetatez eta zehaztugabetasunez beteriko lurralde batera eraman nahi ditu irudiak.



Joseba Eskubik zuzenean erabiltzen du margo akrilikoa arte-liburuetakoren orrien gainean. Esku-hartze arina eta zuzena egiten du euskarrian, ñabardurez eta erregistroz beteriko abiaburu horrek bultzatuta. Lan hauetan guztietan, nolabaiteko atsegina sumatzen da keinuekiko eta materiazko hanpadurerekiko. Pintzelkadek espazioa astintzen, hausten eta saturatzen dute. Txorrostadek, tolesturek eta isuriek interferentziaz beteriko bilbe bat sortzen dute hasierako irudiaren gainean, eta, azkenean, irudiaren zentzua eraldatzen dute.

Insomnia laborategian, esperimenez egiten da irudiak iradokitzeko dituen aukerei buruz. Margoa egiten da beste margo batzuen gainean. Harremanak eta elkarrizketak eratzen dira orainaren eta iraganaren artean; eta harreman horiek kateatzen dira, eta labirintoz eta obsesioz osatutako korapilo konplexu bat eratzen dute.

Bere margoan irudikatzen duen unibertso organikoa, maiz, irudi bilakatzen da, irudizko natura hilaren modura plano baten gainean nabarmenduta. Lan egiteko duen prozesua hainbat sailetan egituratuta dago, sail horietan motibo berberaren hainbat aldagai garatzen ditu, eta era horretan areago indartzen ditu bere proposamenaren giroa eta bizitasuna.



Joseba Eskubiren lanaren oinarrian, ñabarduren eta tentsioen arteko jolas bat sumatzen da, ikuslea pixkanaka baitaratzen duen jolasa. Kontakizunaren zehaztugabetasuna pixka bat nabarmenduz, abstrakzioaren muga hauskorretatik mugitzen da, eta, hala, substantzien eta jarioen etengabeko metamorfosia islatzen dute irudiak. Artistak honela azaltzen du: "Nire prozesuan, etengabeko borroka egoten da keinuak barreiatzeko eta materia hori barne hartzeko asmoen artean. Badirudi halaberharra nolabait arautu beharko litzatekeela egitura batean, norabide batean".

Juan Mendizabal artistak zera adierazi zuen testu batean, Eskubiren artelan hauei buruz: "Irudiaren balizko hutsunearen aurrez aurre, zabalduetako kolorezko multzoen azpian, beste lan batzuetan, gure aurretik mende batzuk lehenago izan diren zenbait margolariren lanetan azalduetako argazkiak aurkitzen ditugu, zati batean ezkutaturik. Figurak eta figuren irudiak zati batean estalita edo ezkutatuta daude, multzo kromatikoen piloen azpian hartuta. Olio eta bastidorea aski ez balira bezala, Halls eta Mondrian barne hartzen dituen Margolaritzaren Historiaren barruan izena emateko. Posta-txartel bat den Margoaren gorputzaren adarrak fresko-pinturaz kutsatuz bezala. Materia horrexek bilakatzen du irudia gorputz, eta, aldi berean, gorputza denez gero, kutsa daiteke. Beste lan bakan batzuetan, irudiaren hutsune hori sumatzen da; eta hutsuneak hondar, lerro eta gainjarritako kolorezko plano listuen forma korapilatsua hartzen du euskarri gainean. Haizeak indartsuegi jo, eta norbaiten hutsunea islatzen duen eraitsitako eta suntsitutako silo baten hondarren aurrean utziko bagintu bezala.

ARTISTA

Joseba Eskubi (Bilbo, 1967) Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHUko Arte Ederren Fakultatean ikasi zuen, eta 1998. urtetik hona bertan aritzen da lanean, margolaritzako irakasle gisa. Banakako eta taldeko erakusketa ugari egin ditu, eta, une honetan, Bartzelonako galería Alergía eta Dinamarkako Aalborgeko Wolfsen galerian ditu ikusgai bere artelanak.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Bilboko La Fundiciónen eman zuen bere burua ezagutzera; eta, gero, erregularitasunez egin ditu erakusketak Bilbon, BBKren Kultur Aretoan (1994), eta Bilkin (2002) eta Epelde & Mardaras (2008) bezalako galerietan. 2005. urtean, banakako lehenbiziko erakusketa jarri zuen Madrilgo Muelle 27 galerian, eta 2010ean, berriz, Cuencako Jamete galerian paratu zuen.